

Airearekin, lurarekin, suarekin, urarekin... eraldaketan



Haur hezkuntza, lehen hezkuntza eta bigarren hezkuntza

Nahietatik, ezinegonetatik eta barne-barneko sentimenduetatik abiatuta, esperientzia katartiko bat bizitzeko erritual magiko moduan ekintzak sortuko ditugu. Natura eta bere 4 elementuen botereak lagunduko digu zeregin honetan.

Helburuak

- Natalia López La Reinaren obra eta lan prozesuetara hurbildu.
- Gure buruaren inguruan hausnartu: sentimenduak, nahiak, ezinegonak eta gure beldurrak.
- Prozesu artistikoak nor berak bere burua ezagutzeko eta banakako edo taldeko katarsi erraminta bezala erabili.
- Ekintza artistikoaren bidez naturaren botere sinboliko eta poetikoan sakondu.

Aipamenak

Natalia López La Reina. "Te envío todo mi amor a través del aire": <https://www.centrohuarte.es/te-envio-todo-mi-amor-a-traves-del-aire/>; https://www.instagram.com/reel/CzlugRWq3c3/?utm_source=ig_web_copy_link&igsh=MzRlODBiNWFlZA; "Detenerse a respirar": <https://lareina-natalialopez.com/detenerse-a-respirar/>

Cecilia Vicuña: Cecilia Vicuña (ceciliavicuna.com); Cecilia Vicuña | ArtNexus

Francis Alÿs: <https://francisalys.com/>; <https://francisalys.com/paradox-of-praxis/>; <https://francisalys.com/watercolor/>; <https://francisalys.com/tornado/>; <https://francisalys.com/when-faith-moves-mountains/>

Sobre los 4 elementos de la naturaleza: Los cuatro elementos a lo largo de la historia | National Geographic

Proposamenaren garapena

Aurkezpena

1. *Detenerse a respirar* eta *Te envío todo mi amor a través del aire* lanak aurkeztuko ditugu. Honako galderen inguruan hausnartuko dugu:

- Zein dira lan hauek itxuratzen dituzten elementu eta materialak? Zer daukate amankomunean bi proiektuek (estrategiak, erabilitako elementuak, gaiak...)? Zeri buruzkoak dira bere ekintzak? Ze paper betetzen du naturak hauetan?, eta pertsonak? Ze gai interesatzen zaizkio, zeinek kezkatzen diote? etab.

2. Talde txikitan naturako lau elementuen zerrenda eginen dugu, erlazionatutako ekintza eta kontzeptuak sartuz. Adibideak: URA: itxaso, ibaia, euria, izotza, izerdia, murgildu, busti, garbitu, edan, ureztatu, urpetu, isuri, xukatu, iragazi... / AIREA: haizea, brisa, hatsa, zerua, haize eman, xuxurlatu, airatu, arnastu, aireztatu, haizea hartu...

Esperimentazioa / Sorkuntza / Ikerketa

1. Bakarka, 4 elementuei dagokionez honakoa ikertuko dugu: sinbologia, erlijio, kultura, familiako ohitura, etab. ezberdinetan duen erabilera erritual-magikoa. Interneten eta liburategietan bilatu dezakegu, gure etxeetan galdetu. Informazioa erregistratzeko idatzi edo marraztu dezakegu, baita irudiak ekarri ere.

2. Zerrendak eta ikertutakoa amankomunean jarriko dugu eta landutakoa/ikertutakoa erlazionatzen dituen mapa bisual bat eginen dugu.

3. Aldi berean, banaka, ondorengo lau galdera pertsonalen inguruan hausnartu eta idatziko (esaldi laburrak) dugu:

- Askatu, soltatu nahi dugun berezko zerbait (geure buruarena).
- Mantendu, ainguratu, luzaroan irautea nahi dugun berezko zerbait (geure buruarena).
- Itxuraldatu, aldatu nahi dugun berezko zerbait (geure buruarena).
- Gure burua eta "bertzea", komunitatea, natura,

ekosistema bezala ulertua, konprometitzen dituen etorkizunerako desira bat.

4. Bikoteka edo talde txikitan, ikertutakoa eta partekatutakoa aintzat hartuta, gure hausnarketa/esaldi pertsonal bakoitzari elementu bat edo bi esleituko dizkiegu eta erritual magiko moduan ze ekintza sinboliko mota burutu ditzakegun pentsatuko dugu.

Erritualak burutzeko aintzat hartu beharrekoa:

- Idatzitako esaldiak abiapuntu edo oinarriko material gisa erabili ditzakegu. Bertzelako elementu sinpleak ere erabili daitezke: makilak, ehunak, artileak, hostoak, harriak, klerak, etab.
- Prozesuan zehar pauso/ekintza sinple bat baino gehiago egitea proposatzen dugu, transformazioen bat gertatzeko elementu natural ezberdinak erabiltzea inplikatzeko duena. Adibideak: idatzitakoa erre eta errautsak lurperatu (sua, lurra); izotz-koskorak egin idatzitako esaldiak barruan sartuz eta eguzkiak urtuko dituen leku batean utzi (ura, sua); adiskide bati belarrira esaldi bat xuxurlatu eta papera busti tintak idatzitakoa desegin arte (airea, ura); etab.
- Ekintzak garatzeko leku zehatz bat pentsatuko dugu zentzu gehiago izan dezaten: eremu naturalak, egunerokoak, ohikoak, kutunak, etab.
- Gustura sentitzen garen bikoteak edo talde txikiak antolatu ditzakegu erritualak elkarrekin adostuta egiteko.

Ekintzak argazkien edo bideo laburren bidez dokumentatuko ditugu.

Ondorioak eta lerro irekiak

1. Bizitutako prozesuaren inguruan hitz egingo dugu honakoa azpimarratuz: nola sentitu garen, eduki ditugun zailtasunak, gozatutako uneak, etab.

2. Erakusketa bat montatuko dugu prozesuan lortutakoarekin: bideoak, argazkiak edo mapa bisuala erabili ahal dugu; gure esaldi eta elementu naturalekin "eskultura" txikiak sortu ditzakegu; erakusketa bisitatuko dutenei proiektuan parte hartu dezaten proposatu diezaiekegu haien hausnarketak idatziz, adibidez.